



HAUTESKUNDEAK  
2024

**Nahi dugun Euskadi  
inklusiboa**

**#EuskadiInklusiboa**

## Nahi dugun Euskadi inklusiboa

Adimen-desgaitasuna,  
garuneko paralisia  
eta autismoaren espektroko nahasmenduak ditugunok  
Euskadi inklusiboagoa nahi dugu.

Pertsona guztiek parte hartu  
eta bizitza osoaz goza dezaketen Euskadi.  
Gure eskubideak errespetatzen dituen eta laguntza pertsonalizatuak  
eta aukera gehiago ematen dizkigun Euskadi.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde  
lan egiten duen Euskadi.

Adimen- edo garapen-desgaitasuna dugun pertsonoi  
gehiago entzuten digun  
kontuan hartzen gaituen,  
eta atzean uzten ez gaituen Euskadi.

Nahi dugun Euskadik aniztasuna ulertzen du  
eta gizarteari egiten diogun ekarpena baloratzen du.

## Euskadi irisgarria nahi dugu

Hesi gutxiago dituzten herriak eta auzoak.  
Oztopo fisikoek, sentsorialek eta kognitiboek  
zaila egiten digute inklusioa.  
Oztoporik gabeko mundu batean  
autonomia izan, parte hartu, iritzia eman  
eta bizi-kalitate handiagoa izan dezakegu.

Nahi dugun Euskadik igogailuak ditu,  
espaloi beheratuak, ate zabalagoak,  
gailu egokituak ospitaleetan,  
eta leku irisgarri gehiago kontzertuetan.

Gainera, irakurketa errazak leku eta espazio bakoitzean egon behar  
du: politikoan, medikoan, kirolekoan, sozialean, hezkuntzakoan,  
kulturean eta beste batzuetan.

Adibidez, Administrazioarekin egin beharreko izapideak, bankuetako  
kudeaketak, hauteskunde-programak eta epai judizialak  
ulerterrazagoak izan behar dira.

## **Nahi dugun Euskadin lan gehiago dago**

Adimen- edo garapen-desgaitasuna dugunok  
lan egin nahi dugu.

Lan-aukera gehiago nahi ditugu,  
Lan-eskaintza Publiko gehiago,  
eta lan gehiago ohiko enpreetan.  
Lan mota asko egin ditzakegu.

Gure beharretara egokitutako prestakuntza gehiago nahi dugu,  
lan-orientaziorako programa gehiago,  
eta enpleguan laguntza garatu ahal izatea.

Lan egiteko zortea dutenek  
soldata duina behar dute.  
Orain gure soldatak txikiak dira.

## **Nahi dugun Euskadik gehiago zaintzen du gure osasuna**

Arreta hobe eman ahal izateko,  
kontsultetan, anbulatorioetan eta ospitaleetan  
lan egiten duten pertsonen adimen-desgaitasunari,  
garuneko paralisiari eta autismoaren espektroko nahasmenduei  
buruzko prestakuntza behar dute.

Gure osasun mentala ere zaindu behar da.

Pertsona batzuk, medikuarengana edo ospitalera goazenean,  
urduri jartzen gara,  
ez dugu ulertzen zer gertatzen zaigun  
eta zer egingo diguten.

Esperientzia hori positiboagoa izaten lagunduko diguten  
protokoloak eta neurriak izatea lagungarria izango litzateke.

Gainera, espezialistengana joateko orduan  
itxaron zerrendarik ez egotea gustatuko litzaiguke.

## **Nahi dugun Euskadin**

### **non, nola eta norekin bizi aukeratu dezakegu**

Horretarako, laguntza pertsonalizuatuak eta etxebizitza gehiago behar ditugu.

Orain etxebizitzak eta alokairuak oso garestiak dira eta ezin gara independizatu.

Gainera, zahartzen garenean ere babesa izatea gustatuko litzaiguke, gure bizimoduarekin jarraitu ahal izateko.

## **Nahi dugun Euskadik**

### **hezkuntza inklusiboa du**

Hezkuntzarako dugun eskubidea bete behar da, hezkuntza-etapa guztietan.

Horretarako, gure beharretara egokitutako laguntzak, zentroak, materialak eta baliabideak behar ditugu.

Eskoletan sentsibilizazio handiagoa behar da, eta balioetan hezi, errespetuan eta elkertasunean, besteak beste. Gehiago egin behar da jazarpena prebenitzeko.

## **Nahi dugun Euskadin garraioa irisgarria da**

Autobusak, metroak, trenak, hegazkinak eta taxiak hartzeko eskubidea dugu.

Beraz, garraio publiko egokitua eta eserleku erreserbatu gehiago behar ditugu.

Desgaitasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku gehiago ere bai.

Gainera, garrantzitsua da informazioa irakurketa errazean izatea.

Adibidez, metroaren ordutegiei edo autobus-txartela ateratzeko moduari buruzko informazioa.

Gure ustez, garraio publikoan lan egiten duten pertsona guztiek sentsibilizazio handiagoa behar dute, gu nola tratatu jakin dezaten.

Garraio publikoa erabiltzeko, pertsona batzuek laguntzaile bat behar dugu, pertsona hori gabe ezin dugu bidaiatu.

Horregatik, laguntza ematen duen pertsona horrek doan bidaiatzea eskatzen dugu.

## **Nahi dugun Euskadin, Justiziak kontuan hartzen ditu gure beharrak eta eskubideak**

2021ean, oso lege garrantzitsua onartu zen desgaitasuna duten pertsonentzat.

8/2021 Legeaz ari gara.

Lege hori betetzeko,

lege-dokumentuen eskuragarritasunean aurrera egin behar dugu.

Erraz azaldu behar dizkigute

gugan eragina duten legeak.

Horretarako, garrantzitsua da

sail guztietako profesionalak prestatzea.

Gainera, polizia-etxeetan eta epaitegietan

bideratzaileak behar dira.

Bideratzaileek guztia ulertzen laguntzen digute,

justiziarako sarbidea baldintza berdinetan

eta diskriminaziorik gabe bermatzeko.



## **Nahi dugun Euskadin**

### **kulturaz, aisialdiaz eta kirolaz goza dezakegu**

Kultura, aisia eta kirola oso eskubide garrantzitsua dira pertsona guztientzat, eta batzuek ezin ditugu gozatu.

Beharrezkoa da kiroldegiak, zinema-aretoak, museoak, tabernak eta antzokiak irisgarriak izatea mugikortasun urriko pertsonentzat edo gurpil-aulkiak erabiltzen dituztenentzat. Informazioa irakurketa errazean ere izan behar dute.

Pertsona batzuek ez dute inor laguntzeko edo ez dute dirurik norbait ordaintzeko. Beraz, pertsona batzuek ezin dute ia ezer egin euren denbora librean.

Aisialdia eta kultura garrantzitsuak dira, horregatik, diru gehiago inbertitu behar da gure aisialdian. Gure elkartean aisialdiko programak eta komunitatean aisialdi inklusiboa sustatu behar dira.

## **Nahi dugun Euskadin gure familiek babes handiagoa dute**

Ezin ditugu gure familiak ahaztu.  
Familiak oso laguntza garrantzitsua dira guretzat.  
Haiek ere baliabideak behar dituzte,  
garrantzitsua baita haiek zaintzea eta babestea.

## **Laburbilduz, nahi dugun Euskadin komunitatean parte hartzen dugu eta bizi gara**

Adimen-desgaitasuna, garuneko paralisia  
eta autismoaren espektroko nahasmenduak  
ditugun pertsonok gizartearen parte gara,  
eta esparru guztietan parte hartu nahi dugu.  
Horretarako gizartea sentibilizatu behar da.  
Ulertu, errespetatu eta baloratu egin behar gaitu.

Nahi baduzue, gurekin konta dezakezue.